



LIBURUA

Haremaren egunerokoa



TERRAZA DEBEKATUAK

FATIMA MERNISSI

ITZULTZAILEA

EDURNE LAZKANO IARBIA

EREIN ETA IGELA, 2025

AMAIA ALVAREZ URIA

Haurtzaroaren amaieran kokatzen dira nobela asko. Protagonistaren ahotsari jarraiki, lekuko gara haur izateari nola uzten dion nerabezaroan sartzeko. Oraingoan ordea, harem batean bizi da bera. Liburuaren egileak harema aipatzen zuenean Mendebaldean, ikusentzuleek irriño batekin erantzuten zioten. Keinu horrek haserretu egiten zuen harema bertako emakumeentzat kartzela zelako eta ez plazeren paradisu. Nondik begiratzen den, hortxe dago koska.

Fatima Mernissi-k 1994an *Dreams of trespass* plazaratu zuen eta iaz Edurne Lazkanok euskaratu zuen Erein eta Igelaren eskutik Literatura unibertsalaren bildumarako: *Terraza debekatua. Haremeko neskatu baten istorioak*. Guk liburu honen gaztelaniazko bertsioa ezagutu genuen lehenik: *Sueños en el umbral*.

Aipatutako izenburuetan *ametsak*, *baimenik gabe sartu*, *terrazza*, *debeekatua*, *ataria* agertzen dira. Berbok gidatuta, 8-9 urteko neskatu batek bere bi amonen harem berri emango digu, bata hirian dago eta bestea mendialdean, batean ezin dira etxetik irten eta bestean bai; baina bietan daude emakumeek bete beharreko arau hertsatzaileak.

22 kapitulutan haremaren mugak eta aukerak ezagutuko ditugu, bertako botere dinamikekin batera kanpoko munduaren oihartzunak ere izango dira, kolonoen artekoak, mundu gerra eta estatubatuarren bisita, edo garaiko musikari edo zinema izarrek ekarritako modak.

Hitzek duten botereaz jabetuko da hasieratik Fatima txikia. Izan ere, bere izebak kontatzen dituen ipuinak edo bere lehen-gusinak jokatzeko dituen antzezlanak izan-

go dira bere arimarentzako elikagaiak. Mila gau eta bat gehiago liburuko printzesak eta historia hurbileko feminista arabiarrak izango dira haren erreferenteak, etorkizuneari emakume aske eta sortzaile izateko.

Biboteak eta bularrak da hemeretzigarren kapitulua; neska-mutilak gizon eta emakume bihurtzen ari diren seinale fisikoak. Horren harira, unibertso femeninoaren atek zabalduko dizkigu eta desira-begiradak, ilea eta azala zaintzeko edertasun-formulak edo *hammam*-a aurkeztuko dizkigu.

Zapalkuntzaz hitz egingo digu eta horren ondoriozko *hema*-z, tristuraz. Baina baita zorientasunaz eta hori lortzeko behar denaz ere: isiltasuna, edertasuna eta *hanan*-a, samurtasuna. Hauxe da bere amaren aholkuetako bat: "*Oihu eta protesta egiten ikasi behar duzu, oinez eta hizketan ikasi duzun bezalaxe*". ●